

Jakinarazpena:

Irabazi xederik gabeko elkarteei diru laguntzak emateko **behin betiko erabakia**  
Herri Partaidetzako 2.2 eranskina: Auzo elkarteentzako eta bigarren graduko lurralde entitateentzako diru laguntzak ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentagarria ordaintzeko.

Erabakiaren datuak:

Eguna	2016/06/21
Organoa	Tokiko Gobernu Batzarrak

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Ikusirik elkarteek beren helburuak lortzeko egiten duten lan handiaren bidez zuzenean eragiten dutela Donostiaren kalitate urbanoa eta ongizatea hobetzen, Herri Partaidetza Zerbitzuak bere aurrekontu baliabideen eta Gobernu Batzarrak 2016eko urtarrilaren 26an onartu eta 2016eko urtarrilaren 29ko 18. G.A.O zenbakian argitaratu ziren arauen arabera, auzo elkarteentzako eta bigarren graduko lurralde entitateentzako diru laguntza batzuk ematea proposatzen du, beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentariagarria ordaintzeko.

Eskabideak egiteko epea pasa ondoren, oinarrietan jarritako irizpideei begiratu eta egindako eskabideak aztertu ditu izapideak egin ditu organo izapidegileak. Hala, eskabideak balioetsi eta txostena egin du, behin-behineko ebazpen proposamena duena. Ondoren, gai hau aztertzeko eraturako Balorazio Batzordeak organo izapidegilearen balorazioa aztertu du, eta behin-behineko ebazpena Udalaren webean eta iragarki oholetan argitaratu da, eta legeak jartzen duen epea eman zaie entitateei egoki jotzen dituzten helegiteak egiteko bidea izan dezaten

Azterketa eta ondorioak Balorazio Batzordeak eginiko txostenean jasotzen dira.

Dirulaguntza lerro honetarako 27.039 euro dauzka aurreikusita Udalak.

Berriazko oinarriek 9. Artikuluan xedatzen duten moduan, Herri Partaidetza Zerbitzuko 2.1 eranskinean izandako 8.488,32 Eurotako soberakina 2.2. eranskineko diru laguntzetarako xedaturiko aurrekontua gehitzeko erabili da.

Ondorioz, kopuru osoa guztira 35.527,32 Eurotako izango da.

Hala, Gobernu Batzarrak eskuordetzan emandako aginpidea erabili eta hauxe da Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdinatsuneko eta Lankidetzako Zinegotzi Ordezkarri honek Gobernu Batzarrari proposatutako

**ERABAKIA:**

**1.- Ondoren azaltzen diren entitateei taulan azaltzen diren diru laguntzak ematea, 2016eko urtarrilaren 29ko 18. G.A.O zenbakian argitaratutako deialdiaren oinarrien 2.2 eranskinaren arabera, auzo elkarteentzako eta bigarren graduako lurralde entitateentzako diru laguntza batzuk ematea proposatzen du, beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentariagarria ordaintzeko**

Elkartea	IFZ / NIF	Diru laguntza guztira
Amara Bai	G20803284	1.960,00 €
Amara Berri	G20559282	1.960,00 €
Añorga Txikitarrak	G20585121	1.960,00 €
Añorga K.K.E	G20189601	1.960,00 €
Altza XXI	G20848370	1.792,90 €
Egia Bizirik	G20801502	1.344,46 €
Elkartasuna	G20432779	1.960,00 €
Herripe	G20187746	1.960,00 €
ILAE	G20534756	1.354,56 €
Intxaurdi	G20446183	1.200,00 €
IZBE	G20678512	1.389,11 €
Lanberri	G20208799	1.960,00 €
Lantxabe	G20769295	1.960,00 €
Loiolako Erriberetako Auzo elk. AVERIL	G20934295	1.960,00 €
Morlanstarrak	G75076026	1.900,40 €
Osteguna	G20491767	1.782,73 €
Parte Zaharrear Bizi	G75064451	1.960,00 €
Sarroeta	G20403408	1.351,34 €
Ulía	G20066692	1.960,00 €
Urumea Ibaia	G20889051	1.851,82 €

**2.- 2.1. eranskineko aurrekontuaren soberakina, 8488,32 Euro, 2.2. eranskineko deialdira gehitzea, berariazko oinarri hauetako 9. Artikuluak aurreikusten duen moduan.**

**3.- Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak onarpena eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran (2.2. eranskineko 7. art.: %70 Gobernu Batzarrak onartutakoan eta beste %30a ekarri beharreko egiaztagiriak ekarri eta gero).**

**4.-** Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak **onarpena eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari** diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran (2.1. eranskinen 7. art.: %70 Gobernu Batzarrak onartutakoan eta beste %30a ekarri beharreko egiaztagiriak ekarri eta gero). **4.- Gastua** (35.527,32 Euro) 2016ko gastuen Aurrekontu Orokorreko Herri Partaidetza Zerbitzuko 481.01 kontu sailari **eranstea**.

**5.-** Erabaki hauek udal iragarki-oholean argitaratuz **jakinaraztea**


**Eta hala jakinarazten dizut,** jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako :

1.- Hamabost eguneko epea izango dutela, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartuzat joko da lehen aipaturiko epean berriaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsoa harri ahal izango duzula Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea duzu, edo bestela zuzenean aurkatu dezakezu bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira. 2016ko ekainaren 22an jarria izanik.

Donostia, 2016ko ekainaren 22a



Amaia Agirreolea Gomez  
HERRI PARTAIDETZA ZERBITZUBURUA